

IZENA - ATZIZKIAK - DETERMINATZAILEAK

1. Aukeratu euskarazko **forma egokia**:

- burbuila / burbuja
- pañueloa / zapia
- azera / espaloia
- atzelaria / defentsa
- eskularrua / guantea
- abiadorea / pilotua
- porteroa / atezaina
- entsaioa / entsegua
- tragatu / irentsi
- oliba / azeituna

2. **Idatzi** esaldi hauetan agertzen **izenak**.

- Gaur nire aita ez da mendira joan.
- Markelek landarea ureztatu du.
- Zure txakurra oso maitakorra da.
- Ez dakit non utzi ditudan nire betaurrekoak.
- Uste dut motxila kiroldegian ahaztu dudala.

3. **Sailkatu** izen hauek:

IZENA	arrunta	berezia	biziduna	bizigabea
Amaia				
Mahaia				
Inurria				
Atarrabia				
Artizarra				
Arkatza				
Liburua				
Ogia				
Landarea				
Audi				

4. Idatzi dagokion **atzikia**.

• Nongoa da zure aita? • Nire aita Elizondo..... da.	• Nork egin du afaria? • Ibai..... egin du afaria.
• Non utzi dituzu giltzak? • Eskola..... ahaztuta utzi ditut.	• Norekin joan zara medikuarengana? • Medikuarengana aita..... joan naiz.

5. **Jarri koma** behar den lekuan.

- Maddi entzun! Zinemara joateko sarrerak lortu ditut.
- Batman arratsaldean ikusi dugun filma asko gustatu zait.
- Zinemara krispetak gozokiak gominolak eta ura eraman dugu.
- Nire amak Aner Eider Mikel eta Saioa etxera eraman ditu.

6. **Lotu**. Nola deitzen zaio...

...dirua asko gustatzen zaionari?	euskalduna
...diru asko duenari?	harakina
...gozokiak oso gustuko dituenari?	haragizalea
...gozoak egiten dituenari?	gozogilea
...euskaraz dakienari?	euskalzalea
...euskara maite duenari?	diruduna
...haragia saltzen duenari?	gozozalea
...haragia gustuko duenari?	diruzalea

7. Bilatu **artikuluak** dituzten hitzak esaldi hauetan.

- Julenen liburua galduta dago.
- Auzoko dendan sagarrak erosi ditut.
- Ikasgelako ordenagailua ez dabil oso ongi.
- Atzo euria ari zuen eta aterkia hartu nuen kalera joateko.
- Berandu heldu naiz eta autobusa galdu dut.

8. Ondorengo esaldietan bilatu **zenbatzaileak**.

- Gaur laranja bat, bi ogi puska eta baso bat esne gosaldut.
- Gripepe heldu da eta ikasle asko gaixotu dira.
- Lurra Eguzki Sistemako hirugarren planeta da.
- Seigarren mailako ikasle batzuek telefono mugikorra dute.
- Laugarren mailakoak kanpoan daude eta gaur, jantokian, hogeik ikasle gutxiago daude.

9. Bilatu **erakusleak** esaldi hauetan.

- Ander okindegi horretara joan da eta bi ogi hauek ekarri ditu.
- Liburu hori kanpaldi hartan irakurri nuen.
- Aulki hauek ez dira gure gelakoak, hango gelakoak baizik.
- Miren etxe hartan bizi da, balkoian zapi txuri hura daukan pisuan.
- Ariketa hauek dira atzo egin genituenak.